

ADMINISTRAZIOKO HIZTEGIA: NORMALIZAZIO-BIDEAN EMANDAKO URRATSA

Mertxe OLAIZOLA

HAEE/IVAP

TERMINOLOGIA ETA HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOA

Terminologia lantzeak izan ditzakeen helburuen arteko bat da hizkuntza gutxituen normalizazioa. Gurera etorrira, euskararen berreskurapenean kokatu behar ditugu terminologia bateratzen eta finkatzen egiten diren ahaleginak.

Jakina denez, gutxiengoaren hizkuntza eta hizkuntza gutxitua dugu euskara. Gutxiengoaren hizkuntza, Euskal Herriko biztanleen artean euskaldunen ehunekoak¹, onenean ere, nekez gainditzen duelako %25a; hizkuntza gutxitua, berriz, ez duelako behar hainbat baliabide garatu gaurko bizimoduko komunikazio-premia guztiei erantzuteko. Ezintasun hori, batik bat, goi-mailako deritzen eginkizunetan erabili ez izatetik dator: ez da urte asko irakaskuntzan, komunikabideetan, administrazioan, lan-arloan... sartu dela. Diglosian dagoen hizkuntza da: gaztelania eta frantsesa izan dira ia oraintsu arte eremu horietako hizkuntza bakar.

Horrelako egoerei aurre egin eta hizkuntzaren normalizazioa bideratzeko, agintariak hartzen dituzten erabakiek definitzen dute hizkuntza-politika, eta hizkuntza-plangintzak izaten dira politika horiek aurrera eramateko tresnak. Plangintzek, halaber, hizkuntzaren kodean, corpusean, eta hizkuntzak gizartean duen egoeran, staturan, eragiteko neurriak hartzen dituzte.

Terminologia finkatzea, eginkizun berezietako hizkera edo espezialitateko hizkera kodetzeko oinarria den neurrian, corpusaren lanketan sartzen da bete-betean.

HAEE-REN EGINKIZUNA

Administrazioko hizkera eta terminologia landu eta finkatzea ditu helburu HAEEk eta horretan egindako lan baten berri emango dugu hemen, *Administrazioko Hiztegiaren* berri.

¹ 1996ko Soziolinguistikazko inkestaren arabera, Iparraldean %25,7koa, Euskal Autonomia Erkidegoan %24,7koa eta Nafarroako Foru Komunitatean %9,4koa da elebidun-kopurua

EUSKARA ADMINISTRAZIOAN

Ez da oso luzea euskarak administrazioan egin duen bidea. Hego Euskal Herriari dagokionez, 1979ko *Autonomia Estatutuak* eman zion euskarari ofizialtasuna Euskal Autonomia Erkidegoan, eta *Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Legeak* ezarri zituen administrazioan, komunikabideetan eta irakaskuntzan euskararen erabilera bultzatzeko norabide nagusiak.

Nafarroako Foru Komunitatean, 1982ko *Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Legearen* bidez etorri zitzaion ofizialtasuna euskarari, eta *Euskerari buruzko 18/1986 Foru Legeak* eskualde euskalduna, mistoa, eta ez euskalduna bereizi zituen administrazioak euskararekiko izan zezakeen betebeharrari begira.

Ipar Euskal Herrian, berriz, frantsesa da hizkuntza ofiziala eta, ondorioz, administrazioaren hizkuntza bakarra.

Historiak erakusten digunez, euskara ez da inoiz izan administrazioaren hizkuntza. Erromatarren sistema juridikoa oinarri zuen administrazioak latina izan zuen adierazpide, eta hark utzitako tokia inguruko hizkuntza erromantzeek bete zuten lehenik, gaztelaniak eta frantsesak, ondoren.

Gaztelaniazko testuetan noizean behin egiten diren euskarazko aipamenak alde batera utzita, konta ahalak dira osorik euskaraz idatzita aurki ditzakegun administrazioko testuak, jatorrizkoak nahiz itzuliak: aktaren bat, ordenantzak, aginduak, udalen arteko gutunak, herritarren batek udalari egindako gutuna, txostenen bat...

1936ko Autonomia Estatutuarekin ezagutu zuen ofizialtasuna euskarak lehenengo aldiz. Administrazioaren jardunaren berri ematen zuen aldizkari ofiziala ele bietan argitaratu beharra ekarri zuen. Horren emaitza dugu *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa - Diario Oficial del País Vasco*, 1936ko urritik 1937ko ekainera bitartean gaztelaniaz idatzi eta euskarara itzulia.

ABIAPUNTUA

Tradiziorik eza

Gauzak horrela, tradiziorik eza dugu administrazioko terminologia eta hizkeraren ezaugarriak nabarmenena. Tradizioaren babesik gabe etorkizunari aurre egin beharra egokitu zaio euskarari, espezialitateko hizkera hau ia hutsetik eraiki beharra. Ikus dezagun banan-banan zein baldintzatan ekin zaion lanari.

Sistema juridiko propioarik eza

Administrazioa antolatzen duen sistema juridikoa kanpokoa izan denez, Espainiakoa edo Frantziakoa, eta azken urteotan Europakoa, euskarak ez du garatu hizkera juridiko-administratibo berezkorik.

Euskal Herriko lurralde historikoek zuten zuzenbide orokorra, ohiturazkoa, lege-bildumetan idatziz jaso zenean, ez zen euskaraz jaso, inguruko hizkuntza erromantzeetan baizik: nafarrera erromanikoz, gaztelaniaz eta gaskoineraz.

Hizkuntza isolatua

Hizkuntzaren tipologiari begira, inguruko hizkuntza erromantzeetatik urrun gelditzen da euskara eta, gainera, isolaturik dago horien artean, ahaide ezagunik gabe. Euskara ez beste hizkuntzaren batean sortzen diren espezialitateko kontzeptuei izendapenak

ematerakoan, eta, guri dagokigunez, administrazioaren eta zuzenbidearen arlokoak ematerakoan, urrunekoegiak gertatzen zaizkio euskarari gaztelaniak nahiz frantsesak emandako konponbideak, baina hurbileko erreferentziarik ere ez dauka.

Hizkuntzaren estandartzea, amaitu gabe

Eginkizun berezietako hizkeren oinarri den aldaera estandarrak berak, euskara batuak, 30 urte eskas ditu. Asko da hizkuntzaren estandartzean egindakoa: idazkera, aditza, deklinabidea... batu dira, baina oraindik ere bada zer eginik.

Terminologia landu eta finkatzerakoan, bereziki nabarmena gertatzen da hiztegi arau--emaile baten hutsunea. Hiztegi arau-emailearen oinarri izango diren hiru lanetan aurrerapauso handiak egin dira: *Orotariko Euskal Hiztegian*, *Egungo Euskararen Bilketa Lan Sistematikoa* eta *Hiztegi Batuan*. Lehenengoa garai eta euskalki guztietako euskal lexikoaren bilduma da; bigarrenak XX. mendeko euskara idatzian erabili den lexikoa biltzen du; hirugarrena, aurreko bietatik abiatuta, lexikoaren idazkera batua ematen ari da.

Administrazioko langileen artean euskaldunak gutxi

Eskualde batetik bestera eta administrazio batzuetatik besteetara (udaletakoa, foru--diputazioetakoa, autonomia-erkidegokoa eta Estatukoa) egoera oso desberdina izan arren, oro har, txikia izan da euskaldun-kopurua administrazio langileen artean. Euskararen inguruko arloren bati lotuagoak dauden sailtako atalak kenduta (Kultura Saileko Hizkuntza Politikako Sailordetza, Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua, HAEeko Itzulpen- eta Euskalduntze-zerbitzua...), gaztelania izan da administrazioaren lan-hizkuntza.

Euskararen ofizialtasuna, bada, legea betetzera etorri da: legeak agintzen duen neurrian, ziurtatu egin zaio herritarrari administrazioko testuak euskaraz jasotzeko zuen eskubidea, baina testu horiek ia beti gaztelaniaz sortu dira eta ondoren euskarara itzuli. Ez da, inola ere, normaltasunez erabiltzen den hizkuntzari dagokion egoera.

ITZULPEGINTZAREN GARRANTZIA ETA TERMINOLOGIAN SORTUTAKO ARAZOAK

Ondorioz, itzulpegintzaren garrantzia erabatekoa izan da administrazioan. Parlamentuetan, gobernuko sailtan, foru-diputazioetan, udaletan... itzulpen-lan handia egin da. Itzulpegintzan sortu diren joeren barruan, nola maileguzaletasunaren hala garbizaletasunaren barruan, nor bere erako konponbidea eman die terminologiako arazoei: sakabanaketa izan du horrek ondorio, kontzeptu bakarrarentzat izendapenak ugari.

Terminologiako sakabanaketak, era berean, zehaztasunik eza, nahasketa dakar, espezialitateko komunikazioak huts egitea. Administrazioko hizkerara etorrira, horrek segurtasun juridikoa galtzea du ondorioztat: administrazioak eta herritarrak elkarrekiko dituzten eskubide eta betebeharrak zertan diren ez da argi zehazten. Azkenean ez da betetzen administrazioak duen helburua: herritarrari zerbitzua ematea.

Joera horien erakusgarri ditugu UZEIren *Administrazio eta Zirkulazio hiztegia* (1983), HAEeren *Administrazioko euskal eskuliburua* (1986) edo eta Eusko Legebiltzarraren *Agintaritza Aldizkariatetikako Hitz-Bilduma Lege bilduma* (1985).

Sakabanaketa horri aurre egin nahirik, azken urte hauetan ahaleginak egin dira erabilera handiko dokumentuak edo errotuluak modu berean emateko. Terminologiako lan sistematikotzat har ez daitezkeen arren, bateratzeko premia horrek eragindakoak dira honakoak: Hizkuntza Politikako Sailordetzaren ardurapean *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren* inprimakia (1991); Hizkuntza Politikako Sailordetzaren eta HAEeren

ardurapean *Euskal Herriko Herri Erakundeen Barne Errotulazioa* (1992) eta *Bide seinaleak* (1994).

ADMINISTRAZIOKO HIZTEGIA

Goian aipatutako administrazio-arloko hiru hiztegi horiek bete dute beren eginkizuna, ezerezetik abiatuta konponbideak eskaintzea izan zuten helburu. Urteak joan dira geroztik, bien bitartean, eta itzulpengintzaren bidez bada ere, hedatu egin da euskara administrazioko eremu gero eta ugariagoetara. Egun daukagun erronka, ondorioz, hasierakoa baino areago doa: sortutako hiztegia eta terminologia eguneratu eta finkatzea dagokigu. Behar horri erantzun nahirik ekin dio HAEEK *Administrazioko hiztegia* lantzeari.

TALDE-LANA, ADOSTASUNAREN OINARRI

Erabilera ziurtatuko bazaie, nahitaezkoa da gaztelaniazko sarrerentzat erabakitzen diren euskarazko ordainek ahalik eta onespenez zabalena izatea. Horregatik eratu dira bi talde, bakoitzak bere eginkizunak dituela.

Lantaldea

Administrazioko erakundeetatik eta UZEItik datozen ordezkariak osatzen dute lantalde hau. Ordezkariok, lanbidez, hizkuntzako adituak eta itzultzaileak dira. Administrazioko erakundeen artean daude: Nafarroako Gobernua, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru-diputazioak eta HAEE.

Azken honek bere gain ditu lanaren prestakuntza eta ardura: zuzenbideko adituek eta terminologoez dihardute eginkizun horretan.

Hiztegia lantzea da lantalde osoaren egitekoa: gaztelaniazko sarrerei euskaraz eman beharreko ordainak erabaki, sarrerarekin batera datorren informazioa (definizioa, testuingurua, erremisioak, oharrak...) ulergarria dela zaindu, definizio eta testuinguruak erabakitako ordainekiko koherenteak direla begiratu... e.a.

Kontsulta-batzordea

Lantaldeak bere lana amaitutzat emandakoan, kontsulta-batzordearen esku uzten du hiztegia, egoki irizitako ohar eta iradokizunak egin diezazkion. Batzorde honetan, euskalgintzan diharduten erakundeak sartzen dira, batetik, eta zuzenbideko adituak, bestetik. Hala, Eusko Legebiltzarra, Nafarroako Parlamentua, Hizkuntza Politikako Sailordetza, Hezkuntza Saila, HABE, EIZIE, ELHUYAR eta Euskaltzaindiarekin batera ditugu Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak. Lantaldean parte hartu duten erakundeei ere aukera ematen zaie zatika egindako lana, orain osorik berrikusteko. Hauen guztien oharrak eta zuzenketak sartutakoan, argitaratzeko prestatzen da hiztegia.

HIZTEGI OROKORRA, ERABILTZAILE ARRUNTARI ZUZENDUA

Erabiltzaile arruntari zuzendutako hiztegia da; adituarentzat baino areago, administrazioko langilearentzat edo administrazioarekin harremanik duen edonorentzat oinarrizko lantresna izatea du helburu.

Abiapuntua hori izanik, lantzen den eremuko unitate terminologikoak ezezik, behin eta berriz erabiltzen diren unitate lexikalak ere biltzen ditu. Eremu honetan lanean diharduena guztiaren beharrea izaten da : finkatu gabe dauden unitate terminologikoekin batera, administrazioko hizkeran maiztasun handiz agertzen diren era guztietako unitate lexikalei konponbidea eman beharrea.

Diseinuari dagokionez, hiztegiaren corpus nagusian gaztelaniazko sarrerak euskarazko ordaina du alboan, azpian definizioa eta testuingurua dituela. Administrazioko unitate terminologiko nahiz lexikalak gaztelaniaz finkatuta daudenez, euskarazko ordainaren bila egiten da kontsulta. Garrantzitsua iritzi diogu, ordea, ordainak emate hutsera ez mugatzeari ; erabilerari begira, lagungarria dela iruditu zaigu, bai kontzeptua azaltzea, bai diskurtso barruan unitate hori nola txertatzen den erakustea.

Hiztegiaren corpus nagusi honi, euskara-gaztelania zerrenda ere eransten zaio, bilaketa euskarazko sarreretatik egin ahal izateko.

ADMINISTRAZIOKO HIZKERA MUGATZEA ETA HIZTEGIAREN ITURRI DEN CORPUSA AUKERATZEA

Eginkizun berezietako hizkera edo espezialitateko hizkeren artean sartzen da administrazioko hizkera. Zein komunikazio-baldintzatan gertatzen den begiratzea aski dugu, hizkera horren ezaugarriak zehazteko.

Gaia

Administrazioaren antolamenduaren oinarrian dagoenez, zuzenbidea da lehenik hartzen duena, administrazio-zuzenbidea, zehatzago esanda. Ez da ordea hor agortzen hizkera honek hartzen dituen gaien multzoa, administrazioaren jarduna gero eta eremu gehiagotara zabalduz doanez, eremu horiek ere badute agerpeidea administrazioko hizkeraren barruan. Hala, zuzenbideko terminoen alboan azal daitezke beste eremu hauetakoak ere : toki-administrazioak, hezkuntzakoak, zirkulaziokoak, ekonomiakoak, osasunekoak, justiziakoak, industriakoak, turismokoak e.a.

Erabiltzaileak

Administrazioa genuke komunikazioaren eskemaren alde batean eta herritarra bestean. Gehienetan, administrazioa izaten da mezu-igorle eta mezu-hartzaile, berriz, beste administrazioren bat, administrazioa eta herritarra aldi berean, edo eta herritarra. Askoz ere gutxiagotan izaten da herritarra mezu-igorle eta administrazioa mezu-hartzaile. Administrazioa, berriz, Estatukoa, autonomia-erkidegoetakoa, foru--diputazioetakoa edo udaletakoa izan daiteke.

Komunikazioaren helburua

Informazioa ematea, zerbaiten berri ematea (hizkuntzaren funtzio erreferentziala) eta hartzailearen jokabidean eragitea (hizkuntzaren funtzio konatiboa) izaten dute helburu administrazioko komunikazioek.

Komunikazio-egoera

Erabat formala da: zerbitzua ematera behartuta dagoen alderdiaren eta zerbitzu hori jasotzeko eskubidea duen alderdiaren artekoa.

Komunikazioaren bidea

Administrazioarekiko hartu-emanak ahozkoak ere badiren arren, idatzizko agirien bidez gauzatzen den komunikazioak garrantzi handiagoa du, daukan eragin ofiziala dela eta.

Komunikazio-egintzan elementu hauetako bakoitzak duen garrantziak erabakitzen ditu administrazioko hizkeraren kasuan-kasuko ezaugarriak. Nolanahi ere, orokorrean hartuta, bi nabarmentzen dira batik bat:

- a) Administrazioko hizkeraren barruan maila desberdinak daude. Esaterako, administrazioak herritarrei zuzendutako bandoa edo administrazio batek bestearekin egindako ituna ez dira maila berekoak.
- b) Administrazioko hizkeraren konplexutasuna. Gai desberdinez aritzen denez, zaila gertatzen da hizkera hau mugatzea.

Lehen esan dugunez, administrazioaren egitekoa gero eta arlo gehiagotara hedatzen doan neurrian, bere hizkera ere gero eta gai gehiagotara zabaltzen da; askotan, zuzenbideko hizkeratik urruntzea dakarkio horrek ondorioztat.

Edozein modutan, hiztegiaren iturri izateko corpora aukeratzekoan, administrazio--zuzenbidearen sorreran dauden testuetara jo dugu, administrazioaren antolamendua eta jarduna arautu eta herritar guztiengan eragina duten testuetara. Arau orokorrak izan dira, bada, hustu ditugunak: legeak, legeak garatzen dituzten erregelamenduak, aginduak, dekretuak, lege-dekretuak, foru-arauak... Hemen sortutako terminologia erabiltzen du gero administrazioak herritar banakoari zuzentzen dizkion testuetan: jakinarazpenetan, baimenetan, eskabideetan, ziurtagirietan...

Euskal Autonomia Erkidegoa, Lurralde Historikoak, Estatua eta Nafarroako Foru Komunitatea hartu dira kontuan corpora osatzen duten lege eta arauak aukeratzekoan.

Administrazioan euskara lan-hizkuntza izan ez denez, euskarazko corpora itzulia da ezinbestean; gartzelaniazkoa da jatorrizkoa. Itzultako testuetan garbi ikusten da hamabost urte hauetan administrazioko terminologiak eta hizkerak izan duen bilakaera.

EREMU-ZUHAITZA

Corpusaren oinarri diren testuak eskuratu ondoren, eremuaren egitura agerian uzten duen zuhaitza egin da. Hona hemen :

1. Funtzio Publikoa
2. Administrazio-jardunbidea eta kudeaketa
3. Administrazioaren kontratazioa
4. Administrazioaren nahitaezko jabetza-kentzea
5. Toki-administrazioa
6. Finantza-administrazioa
7. Administrazioaren jarduera
8. Europako administrazioa

Atalez atal lantzen dira eta lehenengoa bukatuta dago: 600 sarrera inguru adostu dira. Sarrera guztiek dute ordaina, ez ordea definizioa eta testuingurua. Ez da sistematikoki informazio guztia eman nahi izan: definizioa batez ere terminoetan erabili da, kontzeptua argitzeko; testuingurua ia sarrera gehienek dute.

HIZTEGIKO SARREREN EZAUGARRIAK

Gaztelaniazko sarreren aukeraketa

Lehenengo atalaren barruan azpiatalak bereizi dira:

- 1.1 Funtzio Publikoaren egitura eta antolaketa
- 1.2 Euskal herri-administrazioetako zerbitzuko langileak
 - 1.2.1 Euskal herri-administrazioetako funtzionarioak
 - 1.2.2 Bitarteko funtzionarioak, lan-kontratuko langileak eta behin-behinekoak
- 1.3 Administrazioa lan-hitzarmenak
- 1.4 Hizkuntza-normalkuntza

Hortaz, gaiari gagozkiola, puntu horiekin lotutako hiztegi-sarrerak ditugu : funtzio publikoaren antolamendua, administrazioa langile-motak, administrazioa karguak, administrazioaren tramiteak, langileen administrazio-egoerak, hutsegiteak eta zigorrak, hizkuntza-eskakizunak...

Eremu-zuhaitza egin ondoren, atal bakoitzari dagozkion testuak hustu dira; ohizkoak dituzten testuinguruetan unitate terminologikoak eta unitate lexikal arruntak bildu dira. Lehen esan bezala, huts-hutsean irizpide terminologikoak erabili baino nahiago izan da irizpide lexikografikoak ere erabili hiztegi sarrerak aukeratzekoan. Hortaz, bete--betean eremukoak izateagatik jaso diren unitateen alboan, terminoen alboan, jaso egin dira maizenik agertzen diren unitate lexikalak ere.

Unitate terminologikoen artean:

concurso - lehiaketa
comisión de servicios - zerbitzu eginkizunak
turno de promoción interna - barne-sustapeneko txanda
principio de imparcialidad - inpartzialtasun-printzipio

Argitarapenean, unitate terminologikoei edo terminoei **T** hizkia jarri zaie alboan, erabiltzaileak jakin dezan horiek beti horrela erabili behar direla; hizkia ez daramatenekin, unitate lexikalekin, berriz, askatasunez joka dezake eta egoki datozkion moduan moldatu.

Unitate lexikologikoen artean :

requisito - baldintza ; betekizun ; eskakizun
urgente - presako
asesor - aholkulari

Sarrera eman zaien bestelako unitateen artean ditugu fraseologiako unitateak. Administrazioa hizkera euskaraz oraindik eginbidean dagoen hizkera izanik, garrantzi handikoa da terminoek espezialitateko testuetan txertatzeko erabiltzen dituzten aditz, izen, izenondo... lagungarriak erakustea.

Unitate terminologikoen lagungarri direnak:

levantar acta - akta jaso ; akta egin
acreditación de perfil lingüístico - hizkuntza-eskakizuna egiaztatze
suscribir un convenio - hitzarmena izenpetu ; hitzarmena sinatu

Unitate lexikologikoen lagungarri direnak:

reconocimiento de los servicios - zerbitzuak aitortze; zerbitzuak aintzat hartze
asignar funciones - eginkizunak eman; eginkizunak esleitu

Euskarazko ordainak adosteko irizpideak

Gaztelaniazko sarrerak aukeratu eta nomenklatura finkatu ondoren, horiei euskaraz dagozkien ordainak adosten dira. Ordurarte erabilitako izendapenen artean egin da aukera, ahal den neurrian, irizpide hauei begira: izendapenak kontzeptua adieraz dezala (motibazio semantikoa); eratorpenerako edo hitz-elkarketarako aukera eman dezala (motibazio morfologikoa); arlo berean antzekoak diren kontzeptuetatik bereizteko aukera eman dezala; izan dadila gramatikaren araberkoa eta, ahal izanez gero, hiztegi batuan sartua; izan dadila arloko erabiltzaileen artean zabalkunde handikoa edo, gutxienez, finkatzeko aukera duena.

disposición transitoria *xedapen iragankor*
 lehengoak : aldibaterako erabaki; aldibaterako xedapen

excedencia forzosa *nahitaezko eszedentzia (mailegua)*
 lehengoak : nahitaezko lan-utzialdi; derrigorrezko eszedentzia

Hizkuntzak berezkoak dituen baliabideetara ezezik, maileguetara ere jo da kontzeptuen izendapena aukeratzekoan:

mailegua: *absentismo laboral - lan-absentismo; lanera ez agertze*
 presecripción - preskripzio
 reglamento - erregelamendu

kalkoa: *denuncia del convenio - hitzarmena salatze*
 cuerpo de gestión administrativa - administrazio-
 kudeaketako gorputz; administrazio-kudeaketako kidego

hitz-eratorpena: *abuso de autoridad - agintekeria*
 apercibimiento - ohartarazpen

hitz-elkarketa: *acta de la sesión - bilkura-akta*
 potestad reglamentaria - erregelamendu-ahalmen

azalpena, deskripzioa: *cohecho - funtzionario-eroskeria*
 malversación - bidegabeko erabilera; bidegabe erabiltze

Gertatu izan da, ordurarte erabilitako ordainen artean egokirik ez izatea. Horrelakoetan, sortzeko premia benetakoa dela ikusi eta alboko hizkuntzek zer egiten duten aztertu ondoren, hitz berri bat proposatu da:

día hábil *egun baliiodun*
 lehen : astegun

día inhábil *egun baliogabe*
 lehen : astegun ez den

Ahal dela, izendapen bakarra eman da termino direnetan. Zenbait kasutan, ordea, euskarazko bi baliokide ziren egokiak, zabalkunde handikoak, ulerterrazak, nahasbiderik gabekoak. Horrelakoetan, biak utzi dira :

enfermedad profesional - lanbide-gaixotasu ; lanbide-eritasun

retribución básica - oinarritzko lansari ; oinarritzko ordainsari

Ordaina luzeagoa nahiz laburragoa hartzeko aukera :

personal contratado administrativo de colaboración transitoria
lankidetzatza iragankorreko administrazio-kontratuko langileak ;
lankidetzatza iragankorreko administrazio-kontratudunak

Beste kasu batzuetan, aukeran utzi dira gaztelaniazko adjektibo erreferentzialak emateko euskaraz dituen bi bideak, maileguarena eta hitz-elkarketarena :

*administración institucional - administrazio instituzional ; erakunde-
 administrazio*
administración local - toki-administrazio ; administrazio lokal
complemento personal - norberaren osagarri ; osagarri pertsonal

Osakera

Unitate bakunak, morfema bakarrekokoak, oso gutxi dira nola gaztelaniaz hala euskaraz :

es *dimitir, estafa, cuota, destino, baremo*
 eu *kopuru, iruzur, lege, sail*

Gehien-gehienak unitate konplexuak dira:

eratorpenaz : es *antigüedad, apereibimiento, incompatibilidad,*
 eu *antzinatasun, ohartarazpen, baterazintasun*
 hitz-elkarketaz : eu *antzinatasun, ohartarazpen, baterazintasun*

Unitate konplexuen artean, gainera, unitate sintagmatikoak dira nagusi:

indemnización por razones de servicio - zerbitzuaren kalteordain
infidelidad en la custodia de documentos - dokumentu-zaintzako desleialtasun
separación definitiva del servicio - zerbitzutik behin betiko kentze

Gramatika-kategoria

Espezialitateko hizkeran ohikoa denez, izenen bidez adierazten dira hemen ere kontzeptu gehienak.

- (a) *contrato laboral indefinido - lan-kontratu mugagabe*
funcionario con habilitación de carácter nacional - gaikuntza nazionalako funtzionario
- (b) *acreditación de perfil lingüístico - hizkuntza-eskakizuna egiaztatze*
suspensión provisional de las funciones - behin-behineko eginkizun-gabetze

Izenaren azpian dagoena ordea, ez da beti kontzeptu-mota berdina izaten : batzuetan objektua adierazten du (a) eta bestetan prozesua, eragiketa edo ekintza (b). Azken hauek adierazten bidez ere adieraz daitezke, baina gaztelaniaz, euskaraz ez bezala, izenaren bidez adierazteko joera handiagoa da. Gaztelaniaz izen bidez eman diren prozesuak, eragiketak edo ekintzak adierazteko, euskaraz bi aukerak utzi dira : hain berea duen aditz-izena eta izena .

acumulación de tareas - zereginen pilaketa ; zereginak pilatze
permuta de puestos de trabajo - lanpostu-trukaketa ; lanpostuak trukatz

Euskaraz, ez dira beti aukera biak posible izaten, nahitaez aditz-izena erabili behar da orduan :

afiliación a la Seguridad Social - Gizarte Segurantzako kide egite
rescisión del contrato - kontratua desegite

Izenen alboan, aditzak ere azaltzen zaizkigu, askoz gutxiago badira ere :

dar de alta; dar el alta - alta eman
asignar funciones - eginkizunak eman ; eginkizunak esleitu
derogar - indargabetu

Izenen ondoan, bakan batzuk baino ez dira izenondo eta aditzondoak :

urgente - presako
vigente - indarreko
indelegable - eskurordeezin ; delegaezin
reglamentariamente - erregelamenduz ; erregelamendu bidez

AURRERA BEGIRA

Abiatuta gauden arren, luzea da oraindik aurrean dugun bidea; aipa ditzagun eginkizun ditugunak.

ADMINISTRAZIOKO HIZTEGIA

Atalka landu ahala kaleratuz joango da hiztegia. Adostu den terminologia eta lexikoari benetako erabilera ziurtatzeko, ordea, ezinbestekoa da zabalkunde-bideak eraginkorrak izatea. Horregatik, erabiltzaileari kontsultatzeko aukera emango zaio, bai argitarapenaren bidez, bai Euskalterm datu-banku terminologikoaren bidez. Horrekin batera, ahalegin berezia egingo da administrazioan gehien erabiltzen diren idazkietan adostutako terminologia lehenbailehen sartzeko.

Bien bitartean, jarraipena egin beharko zaie erabakitako ordainei, ikusi zerk izan duen arrakasta eta zerk ez, aztertu horren arrazoia eta kontuan izan beste ordainak erabakitzerakoan.

Administrazioko hizkera euskarak berezkoak dituen baliabideetatik abiatuta eraikitzeko, HAEEK aurrera daramatzen egitasmoen artean sartzen da hiztegia. Erakundearen egitekoa da euskara herritarrari zerbitzua ematerakoan nahiz administrazio barruko lanean erabil dadin, hizkera-eredu argia eta zehatza eskaintzea, itzulpenarekiko menpekotasunik gabea.

NORMALIZAZIO-BIDEA

Hasieran esandakoari helduz, egunetik egunera sortzen ari diren komunikazio-beharrei eta, bereziki, arlo formaletakoei, egoki erantzungo dien hizkuntza edukitzea premiazkoa da hizkuntza gutxituaren egoera normalizatuko bada.

Aurrerapauso handiak egin dira hizkera berezituen oinarri den aldaera estandarra, finkatzen. Hala eta guztiz ere, badira terminologia landu eta normalizatzeari begira, oinarri-oinarrizkoak diren kontuak eta amaitu gabe edo aztertu gabe daudenak:

- . Hiztegi arau-emailea: Euskaltzaindiaren zuzendaritzapean aurrera doan lana da. Euskarak egun duen lexikoa jasotzen da bertan. Hiztegiko sarreraren aukeraketa, sarrera horiek dituzten adierak eta sarreraren idazkera ezinbesteko erreferentzia dira terminologia sortzeko; funtsean, lexiko horri arlo jakin batean emandako erabileran dago terminoen sorrera.
- . Hitz-eratorpena: Lexikoa berritzeko hain emankorra den aurizki eta atzizkien bidea nola erabili jakiteko, nahitaezkoa dugu horren berri emango digun azterketan aurrera egitea.
- . Hitz-elkarketa: Hitz elkartuen sailkapena eta idazkerari buruz Euskaltzaindiak emandako arau eta gomendioez gain, hizkuntza erromantzeetako adjektibo erreferentzialak emateko, euskarazko hitz-elkarketak dituen mugak aztertzea ere premiazkoa da.

Eginkizun berezietako hizkerari edo hizkera berezituari dagokienez, horietan komunikazioa ziurtatu eta eraginkorrago egiteko, nahitaezkoa da terminologia normalizatua erabiltzea.

Terminologiaren normalizazioan aurrera egiteko, beharrezkotzat jotzen dugu terminologia-lanak koordinatu eta espezialitateko kontzeptuak euskaraz izendatzeko norabide nagusiak emango dituen erakundea sortzea, antzeko egoera duten herrialdeetan egiten den bezala.

Arloan arloko erabiltzaileen ordezkariak (unibertsitateetatik, lanbide-elkargoetatik, administrazioetik... etorritakoei) eta hizkuntzako adituek (akademikoei, terminologoei...) osatutako erakundearen egitekoak lirake: arlo bakoitzean terminologia lantzen dihardutenak koordinatzea; lanerako irizpide metodologikoak ematea; espezialitateko kontzeptuak euskaraz izendatzeko norabide nagusiak eman eta arlo bakoitzean nola egokitu erakustea; proposatutako terminoak onetsi edo baztertzea; terminoak zabalkundea ematea; horien jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Horrelako erakundea erreferentzia garrantzitsua litzateke irakaskuntzako goimailetan, komunikabideetan, administrazioan, lan-arloan... poliki bada ere, sartzen ari den hizkuntzaren eguneratzea modu bateratuan aurrera eramateko.

BIBLIOGRAFIA

CABRÉ, M.T : *La terminología, teoría, metodología, aplicaciones*. Antártida/Empúries, Barcelona 1993

URRUTIA, A, LOBERA, A: *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*. Deustuko Unibertsitatea, 1995

HAEE/IVAP : *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*, 1989

HAEE/IVAP: *Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetu nahian*.

Hizkera errazteari buruzko jardunaldietako ponentziak. 1996

SENEZ, itzulpen aldizkaria. 17. eta 19. zenbakiak.

BAT Soziolinguistika aldizkaria 11, 12, 17 eta 20/21 zenbakiak.

LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

Administrazioko hiztegia: normalizazio-bidean emandako urratsa

Euskararen berreskurapenaren barruan, HAEEK administrazioko hizkera eta terminologia finkatzen dihardu, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko 10/82 Legea indarrean sartu zenetik.

Iraganean administrazioaren hizkuntza izan ez zenez, espezialitateko hizkera hau ez zuen garatu euskarak. Tradiziorik gabe, sistema juridiko propiorik gabe, inguruan zituen hizkuntzen tipologiatik urrun, hizkuntzaren estandarizazioa eginbidean zegoela, eta administrazioko langileen artean euskaraz lan egiteko gai zirenak gutxi izanik, itzulpenera jo beharra izan zen ezinbestean.

Terminologiari dagokionez, azken urteotan itzulpengintzak izan duen hazkundeak sakabanaketa ekarri du ondorioztat, espezialitateko kontzeptuak oso irizpide desberdinen arabera izendatu baitira.

Irizpide horiek bateratu nahirik ekin dio HAEEK, beste erakunde batzuekin elkarlanean, *Administrazioko Hiztegiari*. Erabiltzaile arruntari zuzendutako hiztegia da, terminologia normalizatu eta arlo honetako lexiko oinarrizkoena finkatzea ditu helburu. Euskarak bereak dituen baliabideetatik abiatuta, lanerako hizkuntza egokia egingo duen hizkera juridiko-administratiboa eraikitzeke ahaleginean, HAEEK aurrera daramatzen beste ekimen batzuen osagarri da hiztegia.

Terminologiaren normalizazioa benetakoa izan dadin, lantaldea eratu da UZEIko eta administrazio-erakundeetako itzultzaileekin eta zuzenbideko adituekin. Euskarazko ordainak erabakitzen amaitutakoan, kritikarako zabaldu da hiztegia. Lehen atala, 600 sarrerakoa, amaituta gelditu da.

Adostutako terminologia eta lexikoaren benetako erabilera ziurtatzeko, berebiziko garrantzia du zabalkundeak. Horregatik, erabiltzaileari kontsultatzeko aukera emango zaio bai argitara emandako hiztegi bidez, bai Euskalterm terminologiako datu-bankuaren bidez. Honekin batera, ardura berezia jarriko da administrazioan gehien erabiltzen diren testuetan ere lehenbailehen sar dadin terminologia hori.

Azkenik, eta hiztegia kokatzen den normalizazio-egoeraren barruan, terminologia-lanak koordinatu eta espezialitateko kontzeptuak izendatzeko irizpide nagusiak emango dituen erakundea sortzearen beharra aipatu dugu.

Diccionario de la Administración: un paso hacia la normalización

Dentro del proceso de recuperación del euskera, el Instituto Vasco de Administración Pública está trabajando en la fijación y normalización de la terminología y

el lenguaje jurídico-administrativo desde que la Ley 10/82 de Normalización del Uso del euskera entró en vigor.

Este lenguaje de especialidad no había sido desarrollado en euskera porque históricamente no había sido usado en este ámbito. La falta de tradición, la ausencia de un sistema jurídico propio, el hecho de que tipológicamente fuera una lengua alejada de las que le rodean, de que la estandarización de la lengua común fuera un proceso aún inacabado y de que el número de trabajadores de la administración capaces de desarrollar su trabajo en euskera fuera reducido hicieron necesario recurrir a la traducción.

La extensión de la traducción en estos últimos años ha traído consigo la dispersión terminológica, ya que los conceptos de especialidad han sido denominados, atendiendo a criterios muy distintos.

Con el deseo de aunar estos criterios, el IVAP ha emprendido junto a otras instituciones la elaboración del *Diccionario de la Administración*. El diccionario está destinado a un usuario no especializado y tiene por objeto normalizar la terminología y establecer el léxico más básico de este ámbito, completando así otras iniciativas que la institución está llevando a cabo para que el euskera desarrolle por sus propios medios el registro del lenguaje jurídico-administrativo y pueda convertirse en un instrumento apto para su uso como lengua de trabajo.

Para que la normalización terminológica sea efectiva, se ha constituido un grupo de trabajo en el que han participado tanto traductores procedentes de instituciones administrativas y de UZEI como expertos en Derecho. Una vez que han acabado de consensuar las denominaciones, el diccionario se ha distribuido para su crítica. La primera parte del diccionario, con 600 entradas, ha quedado finalizada.

Para asegurar la implantación real de la terminología y el léxico consensuado, es de vital importancia su difusión, por lo que, además darle al usuario la opción a la consulta tanto por su publicación como por su introducción en el banco de datos terminológico EUSKALTERM, se pondrá especial atención en hacer que los términos consensuados circulen cuanto antes en los textos administrativos de mayor uso.

Para finalizar, y dentro del contexto normalizador en el que se sitúa este diccionario, hemos mencionado la necesidad de crear un organismo que coordine la actividad terminológica en su conjunto y establezca las directrices generales que se deben seguir para que una lengua minorizada como el euskera denomine sin renunciar a sus características los conceptos de especialidad que surgen en otras.

Dictionnaire de l'administration publique: un pas vers la normalisation

Dans le processus de récupération de l'euskera, l'Institut Basque d'Administration Publique est en train de travailler sur la fixation et sur la normalisation de la terminologie ainsi que sur le langage juridique-administratif depuis que la Loi 10/82 de Normalisation de l'Utilisation de l'Euskera est entrée en vigueur.

Ce langage de spécialité n'avait pas été développé en euskera car historiquement, il n'avait pas été utilisé dans ce domaine. Le manque de tradition, l'absence d'un système juridique propre, le fait que typologiquement c'était une langue éloignée de celles qui l'entourent, que la standardisation de la langue commune était un processus encore inachevé et que le nombre d'employés de l'administration capables de développer leur travail en euskera était réduit, ont rendu nécessaire d'avoir recours à la traduction.

L'extension de la traduction dans ces dernières années a entraîné la dispersion terminologique, étant donné que les concepts de spécialité ont été dénommés, en satisfaisant des critères bien différents.

Dans le désir de réunir ces critères, l'IVAP a entrepris avec d'autres institutions l'élaboration du *Dictionnaire de l'administration publique*. Le dictionnaire est destiné à un utilisateur non spécialisé et il a comme objectif celui de normaliser la terminologie et d'établir le lexique de base le plus simple dans ce domaine, en complétant ainsi d'autres initiatives que l'institution est en train de mener à bien pour que l'euskera développe, par ses propres moyens, le registre du langage juridique-administratif et qu'il puisse devenir un instrument apte pour son utilisation en tant que langue de travail.

Pour que la normalisation terminologique soit effective, un groupe de travail, dans lequel ont participé aussi bien des traducteurs provenant des institutions administratives ainsi que de l'UZEI que des experts en droit, a été constitué. Une fois qu'ils ont eu fini de recenser les dénominations, le dictionnaire a été distribué pour sa critique. La première partie du dictionnaire, avec 600 entrées, est déjà terminée.

Pour assurer l'implantation réelle de la terminologie et celle du lexique recensé, leur diffusion est d'une importance vitale, car, en plus de donner à l'utilisateur l'option de la consultation, aussi bien par leur publication que par son introduction dans la banque de données terminologiques Euskalterm, on prêtera un intérêt spécial pour faire en sorte que les termes recensés circulent le plus tôt possible dans les textes les plus utilisés dans l'administration publique.

Pour finir, et dans le contexte normalisateur dans lequel est situé ce dictionnaire, nous avons fait mention du besoin de créer un organisme coordonnant l'activité terminologique dans son ensemble et établissant les directives générales à suivre pour qu'une langue minorisée comme l'euskera dénomme, sans renoncer à ses caractéristiques, les concepts de spécialité qui surgissent dans d'autres langues.

Public administration vocabulary: a step towards standardisation

It is within the scope of the process aimed at recovering the Basque Language that the Basque Institute of Public Administration is attempting to set and standardise legal-administrative language and terminology since Law 10/82 came into force for the purpose of standardising the usage of Basque.

This speciality language had not been developed in Basque as, historically speaking, it had never been used before in this field. It therefore became necessary to resort to translations due to a lack of tradition, because there was no a legal system in place and huge gap between Basque and other neighbouring languages. Moreover, the standardisation process of the common language had yet not come to a close and very few civil servants were actually capable of using Basque for their work.

Widespread translation facilities in recent years have given rise to terminological dispersion and speciality concepts have been denominated according to a number of very different criteria.

In order to bring these concepts together, IVAP is currently drawing up the *Vocabulary of Administrative Terms* together with a number of institutions. The dictionary has been designed with non-specialised users in mind to standardise terminology and establish the basic terminology used in this field. This work supplements a number of initiatives carried out by the institution to develop legal-administrative terms so that the Basque language may eventually become a suitable work language.

A Task Force was set up to achieve effective linguistic standardisation. It was made up of translators already working for administrative institutions and for UZEI as well as by legal experts. The dictionary was distributed for review after establishing consensus-based denominations. The first part of the dictionary featuring 600 entries is now ready.

Diffusion is essential to guarantee full implementation of terminology and consensus-based lexicon. Users are not only able to make consultations but also access the Euskalterm terminology data bank. Special emphasis must be made with regard to circulating consensus-based terms as promptly as possible in the most widely used administrative texts.

To finish, and within the specific normalisation context of this dictionary, mention has already been made of the need to create a body co-ordinating overall terminological activity and establishing the general guidelines to be followed so that a minority language like Basque may denominate speciality concepts that come to the surface in other languages without relinquishing its own characteristics.